

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zuzendari nagusiaren jakinarazpena, Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran hartutako erabaki bati buruzkoa; erabaki horren bidez HAPO aldatzeko proiektua onetsi eta hasierako onespina eman zitzaion udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko egin nahi den xedapen-aldaketari

Ezinezkoa izan da Ekologistak Martxan Araba, Natura Defendatu eta Ikertzeko Arabako Taldea, Eguzki Zaleak, Arabako Natur Institutua eta Gaia Talde Ekologista elkarteei helaraztea Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zuzendari nagusiak Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13an egin zuen ohiko bilkuran hartutako erabaki batekin lotuta bidalitako jakinarazpena; erabaki haren bidez, HAPO aldatzeko proiektua onetsi eta hasierako onespina eman zitzaion udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko egin nahi den xedapen-aldaketari. Horrenbestez, aipatutako jakinarazpena argitaratzen da, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluekin bat etorritz.

Gaia: HAPO aldatzeko proiektua onestea eta hasierako onespina ematea udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko egin nahi den xedapen-aldaketari.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia

Vitoria-Gasteizko nekazaritza eremuko herrietan, berdeguneek eta espazio libreek ez dute berez espazio libreen funtzioa betetzen, ez baitira beharrezkoak haien neurri eta kokapenagatik, baizik eta elkartzeko, erlazionatzeko eta aisialdirako lekuarena, eta indarreko HAPOaren araupetzeak oztopatu egiten du hori.

Menpeko toki erakundeetan tokiko sistema gisa sailkatutako berdeguneak eta espazio libreak elkartzeko, erlazionatzeko eta aisialdirako lekutzat erabil daitezten sustatzeko interesetik datoz aldaketa honen egokiera eta beharra.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa bete ahal izateko, Gasteizko HAPOaren 5.03.39 artikulua (berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzen du) aldatu da, horren aplikazio-eremutik kanpo uzteko menpeko toki erakundeak, eta 5.03.39 BIS artikulua berria sartu da menpeko toki erakundeei begira, tokiko berdeguneetan egoteko eta jolasteko guneak jartzea baimenduz, baita kirol eremu txikiak ere, eta zona horietako batzuk estali ahal izatea, itxi gabe.

HAPOaren testua honen arabera aldatuko da:

5.03.39 artikulua. Gainerako berdegune publikoen eta espazio libre publikoen baldintza partikularrak

Menpeko toki erakundeetan izan ezik, baldintza partikularrak espazioen neurrien arabera arautzen dira eta 10.000 m² baino gehiago dituztenak eta azalera hori baino txikiagoak direnak bereizten dira.

1. Kirol-erabilera estali gabeko instalazioetan:

a) 10.000 m²-ko azalera baino handiagoa dutenetan baimenduko da eta berdegunearen edo espazio librearen azalera osoaren ehuneko 10 hartuko du gehienez; erabilera osagarrietarako atxikitako eraikin txikiak ere onartuko dira eta, gehieneko azalera, azalera osoaren ehuneko 0,5 izango da. Instalazio horiek hesien bidez ixtea debekatuta dago.

b) 10.000 m² baino azalera txikiagoa dutenetan debekatu egingo da.

2. Estalitako instalazioetako kirol-erabilera debekatuta dago bi kasuetan.

3. Kultur ekipamenduen erabilera:

a) 10.000 m² baino gehiago dituztenetan onartuko da, baina berdeguneen edo espazio librearen ehuneko 1 hartuko du gehienez. Azken forjatuaren goiko aurpegiaren gehieneko altuera 3,5 m-koa izango da.

b) 10.000 m² baino gutxiago dituztenetan onartuko da, baina berdeguneen edo espazio librearen ehuneko 0,5 hartuko du gehienez. Azken forjatuaren goiko aurpegiaren gehieneko altuera 3,5 m-koa izango da.

4. Izaera iraunkorra duten kultur jarduerak edo aisialdirako jarduerak debekatuta daude bi kasuetan.

5. Lur azpiko aparkaleku publikoak:

a) 10.000 m² baino gehiago dituzten berdeguneen kalifikazio xehatueta baimenduko dira, baina gehieneko okupazioa ehuneko 40 izango da eta lur azpian hiru solairu egin ahal izango dira gehienez. Horien instalazioaren ondorioz ez dira zuhaitz-espezie interesgarriak moztuko eta, gutxienez, 1,50 m-ko lodiera izango duen lurra ezarriko da, 1 m-ko sakonera duen sestratik neurtuta.

b) 10.000 m² baino gutxiago dituzten berdeguneen kalifikazio xehatueta baimenduko dira, baina gehienez, hiru solairu izango dituzte lur azpian; okupazio-mugarik ez da izango, baina, gutxienez, 1,50 m-ko lodiera izango duen lurra ezarriko da, 1 m-ko sakonera duen sestratik neurtuta.

c) Espazio libreen kalifikazio xehatueta a) eta b) puntuetan zehaztutako ehuneko eta solairu-kopuru berbera onartuko da, horien azalera kontuan izanik. Espazioaren neurriaren, ezau-garrien, helburuaren eta diseinuaren arabera, eskatutako lur-geruzaren lodierari buruzko araua betetzea ez da derrigorrezkoa izango.

6. Bi kasuetan, edariak, egunkariak, loreak etab. saltzeko kioskoen ezarpena Udalak ezarritako kontzesioen erregimen orokorraren arabera egongo da.

7. Kasu hauetarako, baimen daitezkeen jardueren batura osoa, gehienez, ehuneko 16koa izango da 10.000 m²-ko azalera baino handiagoa dutenean eta ehuneko 0,5ekoa txikiagoak direnean.

8. Kasu bietan baimentzen da lurpeko espazioak eraikitzea salgaien zamaketa-lanetarako eta jarduera logistikoetarako, baldin eta ordenamenduaren eta espazio publikoaren arloko eskumena duten udaleko zerbitzu teknikoek aldeko txostena ematen badute, horren bideragarritasuna jasota.

9. Eraikinak konektatzeko eta oinezkoak batetik bestera ibili ahal izateko pasabideak sortzeko aukera baimentzen da, baldin eta ordenamenduaren eta espazio publikoaren arloko eskumena duten udaleko zerbitzu teknikoek aldeko txostena ematen badute, horren bideragarritasuna jasota eta neurriak, estetika, galiboa eta egokitzat jotzen dituzten gainerako ezaugarriak zehaztuta.

5.03.39 Bis artikulua.- Gainerako berdegune publikoen eta espazio libre publikoen baldintza partikularrak menpeko toki erakundeetan.

Menpeko toki erakundeetan, musika kioskoak, egoteko guneak, autobus markesinak eta kirolgune edo jolasgune txikiak baimentzen dira nekazaritza eremuko bizitegi bilbearen barruan sartuta, leku hauek berariaz salbuetsita: Armentiakoko basilikaren inguruko zelaia, Zadorrako parke lineala, Estibalizko muinoa eta 21 eta 33 zenbakiko lurzoru urbanizagarriko sektoreen eremua.

1. Jolasguneak eta musika-kioskoak estali ahalko dira, itxi gabe. Bolatokiak eta autobus-markesinak estali eta zati batean itxi ahalko dira, gutxienez albo bat irekita utzita —alde luzeena izango beharko du—.

2. Estalkien gailurrerainoko gehieneko altuera ez da 5 metrotik gorakoa izango, eta beste eraikinekiko atzeraemangunea, puntu bakoitzean, puntu horretan duen gutzizko altueratik gorakoa izango da.

3. Elementu estaliek bolumen prismatiko erregularrak izango dituzte, eta estalkietan plano makurtuak baimenduko dira, gehienez ehuneko 50eko maldarekin.

4. Erabilitako materialen kolore eta testurak Lautadako herri-arkitekturan tradizionalki erabilitakoekin bateragarriak izango dira, kolore bizi-bizikiak eta testura distiratsuak saihestuz.

5. Ez da mugarik ezartzen estalkiaren materialei dagokionez, baldin eta behar diren kalitate baldintzak betetzen badituzte; herrien itxura tradizionalarekin bat datozen aukerak gomendatzen dira.

Aldaketa honen eragin aeronautikoari dagokionez, adierazi beharra dago udalerriko menpeko toki-erakunde gehienak aireportu-zortasun eremuren batean sartuta daudela; horrenbestez, aldaketaren zirriborroa Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusira bidali zen txosten loteslea egin zezan, hala ezartzen baitu 2591/1998 EDaren 2. xedapen gehigarriak.

Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak aldaketari buruzko txostena egin zuen —2019ko otsailaren 26an sartu zen erregistroan—, aireportuen sistema orokorra, eragin akustikoak eta zortasun aeronautikoak aintzat hartuta.

Txostenaren arabera, aldaketak Gasteizko aireportuaren zerbitzu-eremuaren barruan sartutako lursailei eragiten die, horiek identifikatzen ez baditu ere, eta aldeko irizpena emateko baldintza hauek jartzen ditu: 1) Gasteizko Aireportuaren Gida Planean aireportuaren zerbitzu-eremu gisa agertzen den Aireportuko Sistema Orokorraren mugak —txostenaren eranskin gisa adierazitakoak— jaso daitezen; 2) Plan Orokorraren artikulatua arau izaeraz zehaztu dadin Gasteizko Aireportuko Sistema Orokorraren eremuaren barruan onar daitekeen erabilera bakarra aireportuaren erabilera publikoarena dela; 3) ematen dituzten zortasun aeronautikoak dokumentuak jaso daitezen; 4) arau izaerako zenbait alderdi erants daitezen, memoriaren zirriborroan agertzen direnak ez baitira egoki eta nahikotzat jotzen.

Ia aldi berean, 2019ko otsailaren 22an, Vitoria-Gasteizko Udalak Plan Orokorraren aldaketa bat onetsi zuen Aireportuko Sistema Orokorra irudikatzeko —apirilaren 17ko ALHAOn argitaratua—, Gasteizko Aireportuaren Gida Planean agertzen den aireportuaren zerbitzu-eremua zedarriz eta lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, garraio sistema orokorraren kalifikazio orokorra eta komunikazioak eta garraioa-aireportua kalifikazio xehatua emanez; hartara, bete egin zen aipatutako baldintzetako lehena. Laugarren baldintzan proposatutako alderdiak, orobat, aipatutako aldaketan (HAPOaren 4.05.65 artikulua) jaso ziren oso-osorik.

Aldaketa honi eransten zaizkio Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak emandako zortasun aeronautikoen planoak (HAPOaren VI. liburukiko 8.2 plano-bilduman), eta hartara hirugarren baldintza betetzen da. HAPOaren 5.03.58 artikulua idazketa ere aldatu da, ezarritako bigarren baldintza betetzearen.

5.03.58 artikulua. Aireportuaren erabileraren baldintza partikularrak

1. Erabilera xehatu berezia dela kontuan izanik, instalazioen ezaugarriak dagokion antolamenduan barne hartutako berariazko ordenantzen bidez definituko dira.

2. Arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: garraioen erabilera globalari buruzko arauak eta aplikatu beharreko sektoreko legeak; Aireportu Legea; Aireko Nabigazioaren Legea; Zortasun Aeronautikoei buruzko 1972ko otsailaren 24ko 548 zenbakiko Dekretua (martxoaren 21eko BOE); Heliportuei dagozkien Zortasun Aeronautikoei buruzko 1975eko uztailaren 11ko Dekretua (abuztuaren 11ko BOE); Interes orokorreko aireportuen antolamenduari eta haien zerbitzu eremuari buruzko abenduaren 4ko 2591/1988 Errege Dekretua (abenduaren 7ko BOE, 292. zenbakia); Gasteizko Aireportuaren Gida Plana, Sustapen Ministerioaren 2001eko uztailaren 17ko Aginduz onetsia (abuztuaren 7ko BOE, 188. zenbakia), eta horiekin bat datozen edo horiek garatu nahiz ordeztzen dituzten gainerako araudiak.

3. Gasteizko Aireportuen Sistema Orokorraren eremuaren barruan aireportuaren erabilera publikoa izango da onar daitekeen erabilera bakarra.

Ingurumen alorreko izapideei dagokienez, 2019ko ekainaren 17an bidali zitzaion ingurumen organoari ingurumen-azterketa estrategiko arrunta abiarazteko dokumentua, eta azaroaren 27an jaso zen irismen-agiria; horren zehaztapenak kontuan izanik landu da ingurumen-azterketa estrategikoa, aldaketa honen zati gisa eransten dena, baita aldaketaren hasierako bertsioa ere, azterketaren emaitzak barne hartzen dituena.

Vitoria-Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakunde hauek osatzen duten aldaketaren eremua: Aberasturi, Abetxuku, Amarita, Andollu, Antezana, Arangiz, Aretxabaleta, Argandoña, Ariniz, Arkaia, Arkauti, Armentia, Arriaga (desagertua), Artatza, Askartza, Aztegieta, Berroztegieta, Betoñu, Bolibar, Ehari, Elorriaga, Erretana, Eskibel, Eztarroa, Foronda, Gamarra, Gamarragutxi, Gamiz, Gardelegi, Gaztelu, Gereña, Gobeu, Gometxa, Ihurre, Ilarraza, Jungitu, Krispiña, Lasarte, Legarda, Lermenda, Lopidana, Lubinau, Mandoia, Margarita, Martioda, Matauku, Mendiguren, Mendiola, Mendoza, Miñao, Miñaogutxi, Monasterioguren, Oreitia, Otazu, Otobarren, Otogoi, Subilla Araba, Uribarri-Arratzua, Uribarri Dibiña, Uribarri Nagusia, Villafranca, Zerio, Zuatzu eta Zumeltzu.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53.2 artikulua arabera, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuan egiturazko antolamenduari dagokio hirigintza-erakigarritasuna, erabilera berezia eta aurreikusten diren erabilera bateragarriak finkatzea, azken horiei dagokien gehieneko eraikigarritasun-ehunekoa ere adierazita. 56.e) artikulua arabera, antolamendu xehatuari dagokio hirigintzako eraikigarritasun fisiko xehatuak zehaztea, baita, hala badagokio, erabilera bateragarrien zerrenda egin eta baimendutako erabilera bakoitzaren gehieneko eta gutxieneko ehunekoak finkatzea; 75.3 artikulua arabera, azkenik, eraikuntza-ordenantzetan definituko dira ez hirigintzako eraikigarritasuna ez lurzoruaren zertarako definitzen ez duten gainerako baldintza guztiak, baita eraikuntza jarduketak baimentzeko planetan ezarritako antolamenduak zehaztutako baldintzak ere.

Proposatutako aldaketak ez ditu aldatzen ez erabileren definizioa, ez hirigintza-erakigarritasuna, ez lurzoruari erabilera globalak edo xehatuak esleitzea, ez erabileren arteko bateragarritasun-harremanak. Espazio libre batzuen erabilera erregimena aldatzera mugatzen da, kasu jakin batzuetan.

Hori dela eta, aldaketak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak Plan Orokorra garatzeko hirigintza-arau deitzen dienei eragiten diela jotzen da, eta arau horiei izaera xehatua ematen die Legeak 68.e) artikulua, plan partzialen nahitaezko agirietan sartzen baititu.

Aldaketa hau idazteko ekimena Vitoria-Gasteizko Udalari dagokio, eta Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren udal saileko teknikariek idatzi zuten 2020ko otsailean.

Onesteko aurkezten den proiektuaren memorian alderdi hauek jaso dira: xedea, eragindako eremua, aurrekariak, aldaketaren justifikazioa eta beharra, proposamenaren deskribapena, hirigintza estandarrak betetzearen justifikazioa, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa, iraunkortasun ekonomiko eta energetikoa, inpaktu akustikoa, zortasun-aeronautikoak, komunikazio elektronikoko sare publikoetako inpaktua, genero-ikuspegia, inpaktu soziolinguistikoa, indarrean dagoen planeamendua eta aldatua, eta dagokion dokumentazio grafikoa.

Aplikagarri den legediari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plan orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa. Beraz, plan orokorraren aldaketak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldaketaren xedera egokituta.

Premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak –2/2006 Legea garatzen du— 30. artikuluan ezartzen duenaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.5. artikulua xedatzen duenez, udalak emango dio hasierako onespina plan orokorrari, eta jendaurrean jarriko, lurralde historikoaren aldizkarian zein zabalkunde handiena duten egunkarietako batean edo gehiagotan iragarkia argitaratuta, hilabetez, azkeneko argitalpenetik kontatzen hasita. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespinen berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; eta, Arabako kasuan, baita udalerriko administrazio-batzarrei ere.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, organo substantiboak jendaurrean jarriko ditu plan edo programaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, informazio publikorako, BOEn edo dagokion aldizkari ofizialean iragarri ostean, eta, hala badagokio, baita egoitza elektronikoan ere. Informazio publikoa berrogeita bost egun balioduneko izango da, gutxienez, eta bertan ingurumen-azterketa estrategikoaren laburpen ez-teknikoa ere txertatu behar da.

Tokiko Gobernu Batzarra da Vitoria-Gasteizko HAPO aldatzeko organo eskuduna; izan ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 127.1.c) eta d) eta 123.1.i) artikuluetan —Tokiko Gobernua Eraberritzeko 57/2003 Legeak erantsiak— xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hirigintza-antolamenduko tresnen proiektuak onestea, horien behin betiko zein behin-behineko onespina Udalbatzari dagozkionean, baita planeamendu orokorra garatzeko tresnen hasierako onespina ere.

Aurrekoa ikusirik, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. HAPO aldatzeko proiektua onestea eta hasierako onespina ematea udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko egin nahi den xedapen-aldaketari.

2. Hasierako onespina ematea udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko egin nahi den Vitoria-Gasteizko HAPOaren xedapen-aldaketari.

3. Erabaki honen berri ematea jarraian adierazten diren antolakundeei, 45 egun balioduneko epean beren eskumeneko arloari buruzko txostena egin dezaten. Epe hori erantzunik jaso gabe igarotzen delarik, prozedura hau tramitatzen jarraituko da: Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Landa-aren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza, Arabako Foru Aldundiko

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza, Ihobe (ingurumenaren kudeaketarako sozietate publikoa, Eusko Jaurlaritza), Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Arabako Natur Institutua, GADEN-Natura Defendatu eta Ikertzeko Arabako Taldea, GAIA talde ekologista, Ekologistak Martxan Araba eta Recreativa Eguzkizaleak elkarteak.

4. Aldaketaren dokumentazioa eta horren ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea, eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta 45 egun balioduneko epean egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

5. Udalerriko administrazio-batzarrei hasierako onespeneraren berri ematea, hogeita eguneko epean txostena egin dezaten. Epe hori igarotzen delarik erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, jarraitu egingo da tramitazioarekin.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 16an

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zuzendari nagusia

MIGUEL ANGEL GARCÍA-FRESCA FRÍAS